

MARRAZKI LEHIAKETA OINARRIAK PTGARAIA 2022

1. Gaia

Lehiaketara aurkeztzen diren marrazkiek GARAIA Parke Teknologikoarekin lotuta egon behar dute.

2. Parte-hartzaileak

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten ikastetxeko ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute, badin eta marrazkiak lehiaketaren oinarrietara eta maila/adinera egokitzen badira. MARRAZKI LEHIAKETA KATEGORIA – 6-12 urte (edo dagozkion mailak)


3. Onarpena eta formatua

- Marrazkia sinatzen duen haurrena izan beharko da.
- Lehiakide bakoitzak irudi bakarra aurkeztu ahal izango du. Ez da onartuko beste lehiaketa batzuetan aurkeztutako edo saritutako irudirik.
- Marrazkiak horrela aurkeztu beharko dira:
 - o ESKANEATUAK; formatu digitalean (JPG, gutxieneko kalitatea 300ppp) eta posta elektronikoz bidaliak komunikazioa@ptgaraia.eus helbidera. Posta elektronikoen gaia: PTGARAIA MARRAZKI LEHIAKETA – 2022 – CONCURSO DE DIBUJO PTGARAIA
 - o Posta edo mezulari bidez bidali ahal izango dira Herrerara, **PTGARAIA Goiru kalea 1, 20500 Arrasate** helbidera.
 - o Herreran entregatu ahal izango dira, **PTGARAIA Goiru 1, 20500 Arrasate** helbidean.

4. Aurkezteko modua

Marrazkien irudiak parte hartzen duten ikastetxeen bidez bideratuko dira, posta elektronikoz/mezulari bidez bidali behar dira edo eskura eman. Marrazkien bidalketa edo entrega guztiak gelaka bildu beharko dira, eta, ahal izanez gero, ikastetxeka.

Marrazki guztiek aurrealdean artistaren izena, abizena eta maila edo adina idatzita eraman beharko dituzte.



5. Epea

Lanak entregatzeko azken eguna 2022ko maiatzaren 30a izango da, 10:00etan. Diseinuen harrera ikastetxearen bidez bideratuko da (email bat kategoria bakoitzeko)

Sariak PTGARAIAko sare sozialetan (TW, LINKEDIN, IG, FB), asteroko buletinean eta epaimahaiak erabakitzen duen beste edozein hedabideetan argitaratuko dira.

6. Epaimahaia

Epaimahaia PTGARAIako lau kidek edo haiek delegatutako kideek osatuko dute.

Epaimahaiak beretzat gordetzen du lehiaketa honen oinarriak interpretatzeko eta aintzat hartu ez diren kasuak ebazteko eskubidea, bere irizpide onenarekin bat etorritz.

7. Sariak

Saria: 300€-ko balioa duen set artistikoa, artista irabazlearen gelari emango zaiona.

Epaimahaiak eskubidea izango du aurkeztutako lanek, bere ustez, merezimendu guztiak betetzen ez badituzte, eman gabe uzteko. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

8. Erakusketa

Epaimahaiak aukeratutako marrazki onenak Garaia Parke Teknologikoko Itxaropena korridorean erakutsiko ditu.

9. Sari banaketa

Sari banaketa parkearen XV. urteurrena ospatuko den ekitaldiaren baitan egingo da, 2022ko ekainaren 13an.

Sarituak saria emateko aurreikusitako ekitaldian jasotzeko konpromisoa hartzen du. Adingabeek heldu arduradun edo legezko tutore batekin joan beharko dute. Ekitaldira joaterik ez badu, saridunak norbait izendatu ahal izango du saria jasotzeko bere ordeztu.

10. Aurkeztutako obrak

Aurkeztutako lanak GARAIA Parke Teknologikoaren jabetzakoak izango dira. Parke Teknologikoak horien gaineko eskubide guztiak gordeko ditu, baita komunikazio euskarritan argitaratzeko aukera ere.

11. Oharrak

Parte-hartzaileek beren gain hartzen dute aurkeztutako lanen egiletza eta originaltasuna, baita hirugarrenek horien gainerako eskubiderik ez izatea eta irudi-eskubideengatik egin daitekeen edozein erreklamazioren erantzukizuna ere.

Erakundeak kontu handiz manipulatuko ditu jasotako diseinuak, baina ez du inolako erantzukizunik galeragatik.

Epaimahaiaren iritziz oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez duten marrazki guztiak automatikoki kanporatuak geratuko dira.

Lehiaketa honetan parte hartze hutsak lehiaketa arautzen duten oinarriak erabat onartzea dakar. Oinarri hauetan aurreikusi ez diren guztirako, PTGARAIak dagokiona ebatziko du.

12. Informazioa

Edozein kontsulta egin nahi izanez gero, jo helbide honetara:

Goiru kalea, 1 20500
Arrasate-Mondragón
(GIPUZKOA)

(+34) 943 03 88 46

komunikazioa@ptgaraia.eus